VITORIA GASTEIZ
green capital

Zure iritzia garrantzitsua da!

¡Tus ideas cuentan!

¿Cual es tu opinión?

Zein da zure iritzia?
Zer deritzozu?

UDALTZAINGOAREN EREDU BERRIA

NUEVO MODELO POLICÍA LOCAL

VITORIA-GASTEIZ winner 2012
EUROPEAN GREEN CAPITAL
An initiative of the European Commission

Udaltzaingoaren eredu berria sortzen
Construyendo el nuevo modelo de Policía Local

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

VITORIA-GASTEIZ
EUROPEAN
GREEN CAPITAL

Udaltzaingoaren eredu berria sortzen
Construyendo el nuevo modelo de Policía Local

Aurkibidea

Sarrera 7

Udaltzaingo Zerbitzua, lehen eta orain 9

- Lan egutegia 9
- Auzo Poliziaren Taldea 9
- Prebentzio eta Babes Taldea 10
- Eskola Inguruko Taldea 11
- Hiriaren banaketa 11

Udaltzaingo Zerbizua, herritarrei begira 13

- Prestakuntza 13
- Hautatze prozesuak 14
- Irudi korporatiboa hobetzea 15
- Informazio eta komunikazio kanalak 15
- Gogobetetze inkestak 16
- Urteko memoria 16
- Gertakarien mapa 16
- Harremanak elkarte eta gizarteko taldeekin 16
- Diziplinarteko lan mahaiak 17
- Herritarrak heztea 17
- Salaketak online 18
- Kexak, eskerrak eta eskaerak 18
- Koordinazioa eta lankidetza 18

Udaltzaingo Zerbitzua, barrura begira 21

- Barruko informazio eta komunikazio kanalak 21
- Zerrenda irakurketa 21
- Iradokizun ontzia eta barne bloga 22
- Helburuen arabera lan egitea 22
- Eskerrak ematea eta gaitzespenak 22
- Baliabide teknologikoak eta bestelakoak 23

Amaiera 25

Eranskina I: Ekarpenei Erantzuna 29

Índice

Introducción 7

El Servicio de Policía Local, antes y ahora 9

- Calendario de trabajo 9
- Policía de Barrio 9
- Grupo de Prevención y Apoyo 10
- Grupo de Intervención Periescolar 11
- Zonificación de la ciudad 11

El Servicio de Policía Local, de cara a la ciudadanía 13

- Formación 13
- Selección 14
- Mejora de la imagen corporativa 15
- Canales de información y comunicación 15
- Encuestas de satisfacción 16
- Memoria 16
- Mapa incidental 16
- Interrelación con asociaciones y colectivos 16
- Mesas de trabajo interdisciplinar 17
- Formación a la ciudadanía 17
- Denuncias on-line 18
- Quejas, agradecimientos y peticiones 18
- Coordinación y colaboración 18

El Servicio de Policía Local, de puertas adentro 21

- Canales de información y comunicación interna 21
- Pases de lista 21
- Buzón de sugerencias y blog interno 22
- Trabajo por objetivos 22
- Reconocimientos y reproches 22
- Dotación de medios y recursos tecnológicos 23

Conclusión 25

Anexo I: Respuesta a las Aportaciones 43

Udaltzaingoaren eredu berria sortzen
Construyendo el nuevo modelo de Policía Local

VITORIA-GASTEIZ winner 2012
EUROPEAN GREEN CAPITAL
An initiative of the European Commission

Udaltzaingoaren eredu berria sortzen
Construyendo el nuevo modelo de Policía Local

UDALTZAINGOAREN EREDU BERRIA
NUEVO MODELO POLICÍA LOCAL

Udaltzaingoaren eredu berria sortzen
Construyendo el nuevo modelo de Policía Local

Sarrera

Egungo gobernu taldeak Udaltzaingo Zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu zuenean, garrantzizko erronka bati ekin zion, eta erabaki zuen prozesu horretan herritarrek ere parte hartzea. Hartara, 2012ko udaberrian, Vitoria-Gasteizko Udalak polizia eredu berria egiteko herritarrek parte hartzeko prozesua hasi zuen. Hasiera-hasieratik planteatu zen prozesua Udaltzaingo Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko tresna gisa; eta horren berri eman zitzaien bai Zerbitzuko langileei, bai herritarrei, beren konplizitatea eta parte hartzea lortzeko asmoarekin; izan ere, denon lana da Zerbitzuaren bikaintasunera iristea.

Pixkanaka-pixkanaka, prozesu horren bi muturrak parte hartze dinamika batean sartu ziren, eta baita urrats batzuk eman ere, egungo fasera —ez da azkena— heldu arte: gobernu taldeak bere konpromisoak zehaztu, eta lan horretan parte hartu duten guztiei erantzungo die.

Gauzak horrela, dokumentu bat egin dugu non parte hartze prozesuan izan diren ekarpen guztiei erantzuten diegun: batzuk ez ditugu onartu eta horren zergatiak azaldu ditugu; onartu ditugun ekarpenek, berriz, gehienek zehaztuta dituzte epeak eta arduradunak. Horrenbestez, esku artean duzuen dokumentu honetan, gobernu taldearen konpromiso eta erantzunen ikuspegi txukun eta orokorra eskaini nahi izan dugu.

Bide horretan, jakitun ginen Udaltzaingo Zerbitzuaren abiapuntua hau zela: indarrean dagoen polizia ereduak beste norabide bat hartzea, hau da, polizia izatea hurbila, proaktiboa eta prebentzioan diharduena, hots, kalean dagoen polizia. Parte hartze prozesuak baieztatu egin du uste genuen hori, gainera, ñabardura interesgarriak azaleratu ditu eta ezinbesteko lehentasunak jarri. Hartara, bost ardatz dira polizia ereduaren lerro nagusiak finkatzen dituztenak: kalitatezko polizia, herritarren zerbitzura dagoen polizia, hurbila, herritarrekin konprometitua, eta beste erakundeekin elkarlanean diharduena.

Azken finean, Udaltzaingo Zerbitzua polizia profesional bezala harturik, eta helmuga bikaintasuna duela jakinda, bai Zerbitzuko langileek, bai herri-

Introducción

Cuando asumió la gestión del Servicio de Policía Local, el actual equipo de gobierno, emprendió un reto importante y para ello optó por dar cabida a la ciudadanía. De esa forma, en primavera de 2012 el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz dio comienzo al proceso de participación ciudadana acerca del nuevo modelo de policía. Desde el principio, este proceso se planteó como una herramienta de mejora de la calidad del Servicio de Policía Local, y se abrió tanto a los miembros de la plantilla como a la ciudadanía en general, buscando la complicidad y la participación de ambos colectivos, porque la búsqueda de la excelencia en el Servicio es algo que compete a todos/as.

Paso a paso, los dos polos necesarios de este proceso entraron en una dinámica de participación que fue avanzando en distintas fases, hasta llegar a la actual —que no es la última—, que es aquella en la que el equipo de gobierno define sus compromisos y devuelve una respuesta a todas aquellas personas que tomaron parte en esta tarea.

Así, hemos elaborado un documento que contesta a cada una de las aportaciones habidas en el proceso participativo: algunas se han rechazado y se explican los motivos; respecto de las que se aceptan —la gran mayoría—hemos establecido plazos y responsables. En este documento que ahora acometemos, pretendemos dar una visión ordenada y global de lo que constituye el compromiso y la respuesta del Ayuntamiento a esas aportaciones.

En el camino recorrido, hemos sido conscientes de la realidad de la que partía el Servicio de Policía Local: el modelo vigente tiene que derivar hacia un cuerpo policial próximo, proactivo y preventivo, una policía que esté en la calle. Así el proceso participativo nos ha confirmado esta intuición, si bien ha aportado matices interesantes y establecido prioridades que no podemos dejar de tener en cuenta. De esta forma cinco ejes marcan las líneas principales que deben regir el modelo policial: policía de calidad, al servicio de la ciudadanía, cercana a ella, implicada con ella y coordinada con otras instancias.

Con un Servicio de Policía Local que es valorado como un cuerpo policial profesional y el horizonte

tarrek, guztiek nahi dute bizilagunen arazoak aurreikusi eta irtenbideak emateko prest dagoen polizia, bertan delako konfiantza sortzen duen polizia, hurbila dena zerbitzua ematen dion hiriarekin eta egun Gasteizko gizarteari kezka sortzen dien gaiei heltzen diena: indarkeria oro har eta genero indarkeria zehazki, delinkuentzia, droga gazteen artean, bide segurtasuna...

Beraz, lan egingo dugu polizia profesionala, prestatua eta informatua lortzeko. Lehenik, denda eta gizarte taldeentzat erreferente izan dadin, Auzo Poliziaren Taldeari garrantzi handia emango diogu; bigarrenik, hezkuntza ingurunean erreferente izateko eta gogotik aritzeko gazteenek dituzten droga arazoetan, Eskola Inguruko Taldea sortu dugu; hirugarrenik, prebentzioan erreferente izateko Prebentzio eta Babes Taldea indartu dugu, polizia gehiago egotea eskatzen den tokietan edo segurtasun-eza sentsazio handiagoa dagoen lekuetan izateko; laugarrenik, Trafiko Arloa ere indartu dugu, bide segurtasun arloan erreferente izaten jarraitzeko; eta azkenik, genero indarkerian, ikerketetan, eta salaketetan dugun ospe ona sendotzeko, eta baita gainontzeko lan anitzak egiteko, hor ditugu gure patruilak, egunero-egunero hirian zehar dabiltzan patruilak, alegia.

Horra hor geure apustua. Eta apustu hori bideratzeko, beharrezkoa da gizarte osoaren babes eta laguntza: norbanako guztiak dira beharrezkoak, ez dago alferrikakorik.

puesto en la excelencia, la plantilla del Servicio y la ciudadanía quiere una policía preparada para anticipar y solucionar en lo posible los problemas de los/las vecinos/as, además de generar confianza porque está presente, porque es cercana a la ciudad a la que sirve y porque aborda las temáticas que hoy en día preocupan a la sociedad vitoriana: la violencia en general y la de género en particular; la delincuencia, la droga en los jóvenes o la seguridad vial.

En consecuencia, trabajaremos por una policía profesional, formada e informada. Para que sea un referente para los comercios y colectivos sociales, dedicaremos un espacio importante a la Policía de Barrio; para que sea un referente en los entornos educativos e incidamos con más fuerza en la problemática de la droga en la población más joven, creamos el Grupo de Intervención Periescolar; para que sea un referente en la preocupación por la prevención pero también estar en los lugares donde se reclama más presencia policial o existe más sensación de inseguridad, reforzamos el Grupo de Prevención y Apoyo; para seguir siendo un referente en materias de seguridad vial, reforzamos el Área de Tráfico; y para consolidar nuestro impulso en violencia de género, investigación o denuncias y el resto de nuestro amplio abanico de tareas, contamos con las patrullas que día a día recorren la ciudad.

Esta es la apuesta del Servicio de Policía Local y del Departamento de Seguridad Ciudadana en el que aquél se integra. Para sacarla adelante seguimos necesitando el apoyo y la colaboración de todas las fuerzas sociales: todas las manos son necesarias, ninguna sobra.

Udaltzaingo Zerbitzua, lehen eta orain

Parte hartzeko prozesu hau hasi genuenean, Udaltzaingo Zerbitzuak 379 langile zituen, eta beste 39 sartzeko zain zegoen une hartan. Gaur, hori errealitate bihurtu da eta 404 polizia ditugu.

Gasteizko hiriak 243.000 biztanle ditu; beraz, esan dezakegu 1.000 biztanleko 1,67 polizia ditugula. Europar Batasunak gomendatzen duen ratio ideala da 1.000 biztanleko 2 polizia izatea denez, Herritarren Segurtasunaren Saila lanean ari da portzentaje hori lortzeko. Bitartean, datu horiekin, gure erronka da langileak ahalik eta ondoen antolatzea, eta horregatik aldaketa batzuk egin ditugu. Dokumentu honetan zehaztuko ditugu aldaketa horiek.

Lan egutegia

Lan egutegia indartu egin dugu eta eguneko atalentzat aldatu. Lehen, lan zikloa zen hilabete bat lan egitea —15 egun goizez eta 15 arratsaldez— eta 15 egun atseden hartzea; orain, berriz, zikloa da 10 egun lan egitea —5 goizez eta 5 arratsaldez— eta 10 egun atseden hartzea.

Aldaketa horiekin lan-zikloak laburragoak eta zentzuzkoagoak dira, langilea bete behar duen eginkizunarekin lotuago dago, eta gainera saihesten da lanaldian egun libreak hartzea.

Horren ildotik, laugarren lan txanda bat sortu da, lehen hiru ziren, betiere gaueko bi txandak mantenduz. Aldaketa horri esker, 24 orduko zerbitzua era eraginkorragoan bete daiteke, langilerik kendu gabe, txanda berria osatu baita beren lanaldietan egun libreak zituzten poliziekin.

Azkenik, ezin esan gabe utzi egungo lan-egutegia langile guztien parte hartzearen emaitza izan dela, eta, beraz, arlo horretan gogobetetze oso handia dela.

Auzo Poliziaren Taldea

Auzo Poliziaren Taldea oinarri argi batzuekin sortu zen: filosofia nagusia zerbitzua ematea izatea, polizia lan pertsonalizatua egitea, herritarrekin ha-

El Servicio de Policía Local, antes y ahora

Cuando emprendimos el proceso participativo, el Servicio de Policía Local contaba con 379 miembros a la espera de que otros 39 agentes entrasen a formar parte del mismo. Hoy esto ya es una realidad y nuestra plantilla cuenta con 404 policías.

La población del municipio de Vitoria-Gasteiz es de 243.000 habitantes, por lo que el ratio es de 1,67 policías por cada 1.000 habitantes. La Unión Europea fija en 2 su recomendación de ratio ideal, por lo que el Departamento de Seguridad Ciudadana continúa trabajando para conseguir esta media. Con estos datos, el reto actual se basa en distribuir la plantilla de la manera más eficaz posible, por lo que se han producido una serie de cambios que pasamos a comentar.

Calendario de trabajo

Se ha reforzado el calendario de trabajo, que ha cambiado para las secciones diurnas. De un ritmo de 1 mes de trabajo —15 días de mañana y 15 de tarde— más 15 días de asueto, se ha pasado a 10 días de trabajo —5 de mañana y 5 de tarde— más 10 días de asueto.
La consecuencia es que los ciclos de trabajo son más racionales y cortos; evitan la desconexión del trabajador sobre la labor que tiene que desempeñar, además de evitar también días de libranza en el periodo de trabajo. De lo anterior deriva que se ha generado un cuarto turno de trabajo diurno frente a los tres que había antes, siempre manteniendo los dos de noche. Este cambio hace que se pueda cubrir el servicio de 24 horas de manera más eficaz, y ello sin merma de efectivos, ya que el nuevo turno se ha cubierto con agentes que tenían libranza en sus turnos.

Por último cabe añadir que el calendario actual ha sido fruto de la participación de toda la plantilla, por lo que el nivel de satisfacción actual en este punto es máximo.

Policía de Barrio

Cuando se creó la Policía de Barrio se hizo con principios claros: una filosofía de servicio, de traba-

rreman aktiboa izatea, arazoak konpontzea eta herritarrekin parte hartzea. Oinarri horiekin, talde horri honako eginkizun hauek jarri zitzaizkion:

-Segurtasunarekin lotutakoak: zaintza prebentiboak egitea eremu publikoetan eta ikastetxeetan, bisitak dendetara, bilerak egitea talde eta elkarteekin, esku hartzea jokabide delituetan eta gizartearen kontrako ekintzetan, besteak beste.

-Trafiko eta bide segurtasunarekin lotutakoak: trafikoa kudeatzea eta kontrolatzea, zirkulazioa eta ibilgailuak gelditzea, antzematea alde batera utzitako ibilgailuak, laguntzea istripuetan, lege hausteen salaketak egitea, elkarlanean jardutea kanpainetan....

- Administrazio poliziarekin lotutakoak: udal ordenantzak betetzearekin zerikusia duen guztia.

-Gizarte jarduerekin lotutakoak, bitartekaritza eta informazioa: herritarrak entzutea, familien eta bizilagunen arazoak konpontzea edo beste baliabide batzuetara desbideratzea, zaintzea beharrean edo gizarte bazterketan egoteko arriskuan dauden pertsonak, liskar pribatuetan konponbidea lortzeko elkarlanean jardutea, kexa eta iradokizunen segimendua egitea...

-Bide publikoaren gabeziekin lotutakoak: aztertzea bide publikoaren edo hiri altzarien egoera, seinaleak hobetzeko txostenak egitea, argiak ondo dabiltzan begiratzea, besteak beste.

Egun, Auzo Poliziaren Taldeak esperientzia handia du eta asko hazi da: lehen, eguneko ataletan 45 agente genituen (15 agente x 3 txanda), orain, berriz, 80 agente ditugu (20 agente x 4 txanda).

Aldaketa horren helburua izan da Salburuan eta Zabalganan poliziak presentzia gehiago izatea, orain arte bi auzo horiek ezin baitziren etengabean zaindu.

Prebentzio eta Babes Taldea

Legealdiaren hasieran, herritarren segurtasun ezaren pertzepzioarekin lotutako eskaerei erantzuteko sortu zen Prebentzio eta Babes Taldea. Atal hori martxan jarri eta 2012. urtean lortutako emaitza onak ikusita, eta herritarren arazoei irtenbide hobeak emateko, eta ahal den heinean arazo horiek aurreikusteko, handitu egin da Prebentzio eta

jo policial personalizado, de relación activa con la ciudadanía, de resolución de problemas y de participación ciudadana. Sobre esa base se asignaron a este grupo una serie de funciones que podríamos resumir de la siguiente forma:

-En relación a la seguridad: vigilancias preventivas en espacios públicos y centros educativos, visitas a establecimientos, reuniones con colectivos y asociaciones, intervención en conductas delictivas y actos antisociales, etc.

-En relación a tráfico y seguridad vial: regulación y control del tráfico, circulación y estacionamientos, detección de vehículos abandonados, atención en accidentes, denuncias por infracciones, colaboración en campañas, etc.

-En relación a policía administrativa, todo lo relativo al cumplimiento de las ordenanzas municipales.

-En relación a actividades sociales, de mediación e información: la escucha a la ciudadanía y la solución o derivación a otros recursos de problemas tanto familiares como vecinales, la atención de personas en situación de necesidad o en riesgo de exclusión social, la colaboración en la resolución de conflictos privados, el seguimiento de quejas y sugerencias, etc.

-En relación a las deficiencias en la vía pública: la comprobación del estado de la vía pública y del mobiliario urbano, etc., la realización de informes acerca de la mejora de la señalización, la comprobación del alumbrado, etc.

Ahora, con amplia experiencia, el Grupo de Policía de Barrio ha incrementado de manera importante su número de agentes, ya que antes en las secciones diurnas se disponía de 45 agentes (15 agentes x 3 turnos), y ahora contamos con 80 agentes (20 agentes x 4 turnos). El objetivo de esta variación es llegar a tener más presencia en Salburua y Zabalgana, dos barrios que hasta este momento no podían cubrirse de manera continuada.

Grupo de Prevención y Apoyo

En el comienzo de la legislatura, para atender a las demandas ciudadanas relacionadas con la percepción de inseguridad, se creó el Grupo de Prevención y Apoyo. Esta unidad comenzó su andadura y, vistos los resultados conseguidos en 2012, se ha considerado su ampliación. Así, con vistas no sólo a solucionar mejor los problemas de la ciudadanía sino también a anticiparlos en la medida de lo po-

Babes Taldea: lehen 19 polizia ziren (16 agente eta 3 nagusi), eta orain 35 polizia dira (30 agente eta 5 nagusi).
Polizia horien laneko ordutegia ere handitu egin da; izan ere, lehen arratsaldez eta gauez lan egiten zuten, eta orain goizetan ere jarduten dute. Helburua da talde horrek egun osoan zehar presentzia handiagoa izatea kaleetan hiriko leku liskartsuetan prebentzio-lanak egiteko, eta ez bakarrik une berezietan esku hartzeko.

Gainera, orain talde horren ordutegia bat datorrenez gainontzeko atalekoekin, denen arteko elkarlana eta harremana errazten da.

Eskola Inguruko Taldea

Gazteenek drogekin duten harremana kezka larria da Udalarentzat, eta horrek ekarri du Eskola Inguruko Taldea sortzea. Taldea osatzen dute Auzo Polizia eta Berehalako Ekintzako Polizia taldeetatik ateratako agenteek. Duela gutxi arte lagun bakar batek osatzen zuen taldea, baina egun beste 16 poliziak harekin batera egiten dute lan, eta horri esker, ikastetxe gehiago kontrola daitezke. Gainera, lehen polizia bakar hark lanaldi zatitua zuen; orain, berriz, taldeak goizeko 6:00etatik gaueko 22:00etara egiten du lan.

Horrela, poliziak gazteak ikastetxeetan sartu aurretik iristen dira, edo eskola ordutegitik kanpo elkartzen diren lekuetara joaten dira zuzenak ez diren jarduerak kontrolatzeko, adibidez, botellatzarra eta bandalismoa, borrokak, droga edo alkohol kontsumoa. Bestela esanda, ikastetxeetako atsedenaldi ordutegia kontrolatzetik eskola egun osoan kontrolatzera pasa gara. Horrela, gainera, Udaltzaingoa ikastetxeentzat erreferente bihurtzen da, eta ikastetxeekin batera lan egin dezake eskola bakoitzarentzako segurtasun plan propioak diseinatzen eta ezartzen.

Hiriaren banaketa

Ildo berean, polizia hurbilagoa eta eraginkorragoa izateko, 5 eremu izatetik 7 izatera pasa gara, eta lortu dugu neurriak egokiago ezartzea eremu bakoitzean. Hala, patruilek presentzia handiagoa izango dute, batez ere Zabalgana eta Salburua zonalde handietan (txanda bakoitzean 5 patruila izatetik 7 izatera pasa gara, hau da, eremu bakoitzean patruila bana). Dokumentu honek erantsita dauzka banaketa berri hori islatzen duten mapak.

sible, se ha incrementado el número de efectivos asignados al Grupo de Prevención y Apoyo (GPA), que pasa de 19 policías (16 agentes y 3 mandos) a 35 policías (30 agentes y 5 mandos).

Este incremento va acompañado de otro paralelo en el horario laboral de estos policías, ya que antes trabajaban por la tarde y por la noche, y ahora abarca también el turno de mañana. El objetivo es conseguir una mayor presencia de este grupo durante todo el día, para que puedan acometer tareas preventivas en zonas inseguras de la ciudad, y no meramente de intervención especial. Además, al coincidir el horario con el del resto de secciones, se permite la interrelación y el trabajo conjunto de todos ellos.

Grupo de Intervención Periescolar

La preocupación del Ayuntamiento por la problemática de las drogas en relación con la población más joven ha hecho que se conformase un Grupo de Intervención Periescolar, integrado por policías de las unidades de Policía de Barrio y P.A.I.
Este grupo anteriormente estaba formado por una única persona pero ahora le acompañan otros 16 policías, lo que permite acceder a un mayor número de colegios controlados. Además, el único policía trabajaba en horario partido, mientras que ahora el Grupo abarca una franja horaria que va desde las 6:00 horas hasta las 22:00 horas, lo que hace que se pueda llegar a los momentos anteriores a las entradas a los colegios o a zonas de reunión de jóvenes fuera del horario escolar, controlar actividades como el botellón y el gamberrismo, las peleas, el consumo de sustancias y alcohol. Es decir, se ha pasado de controlar el horario de recreo a controlar toda la jornada escolar. También así Policía Local se convierte en un referente para los centros educativos, ya que puede participar con ellos en la confección y aplicación de planes de seguridad específicos para cada colegio.

Zonificación de la ciudad

En la misma línea de querer hacerse próxima a toda la ciudad y crecer en eficacia, se ha pasado de 5 a 7 zonas en la ciudad, para un mejor “dimensionamiento” de la misma. Así se logra que haya una mayor presencia de patrullas, especialmente en las dos grandes zonas de Zabalgana y Salburua (de 5 a 7 patrullas en cada turno, una por zona). Se adjuntan mapas que reflejan gráficamente esta nueva distribución.

2010ko Banaketa

Zonificación 2010



2012ko Banaketa

Zonificación 2012



Udaltzaingo Zerbitzua, herritarrei begira

Nahiz eta neurri handi batean Gasteizko Udaltzaingoaren jarduera txukuna izan —oso egokia, arlo garrantzitsu batzuetan—, egia da noizean behin kexak jasotzen ditugula, batez ere tratuarekin edo komunikatzeko estiloarekin zerikusia dutenak. Kexa gehienek zera diote: erlazionatzeko modua urruna dela, harroa, agintzailea, ezatsegina edo oldarkorra, batere arrazoirik gabe.

Jarrera horien zergatiak —inoiz ez justifikazioak— bilatzen hasten bagara, agian jarrera desegoki hori aurreko polizia ereduarekin lotuta egon daiteke. Beste zergati batzuk izan daitezke polizien heziketan gabeziaren bat egotea, herritarrekiko harremanekin zerikusia duena, hain zuzen ere; edo herriari zerbitzua emateko kulturarik eza. Horretaz gain, hautaketa prozesuetan hutsuneak izan dira eta horiek ere izan daitezke arazoaren iturburuak. Atal honetan aztertuko ditugu Udaltzaingo Zerbitzuak bi arlo horietan —prestakuntzan eta hautatze prozesuetan— ezartzen ari den edo ezarriko dituen hobekuntzak, eta baita ezartzen ari diren beste lan ildo batzuk ere.

Prestakuntza

Herritarren parte hartzeko prozesuaren emaitzarekin bat eginez, ikusi dugu Zerbitzuak dituen arazoen iturburu bat prestakuntza dela. Bada, arlo horri dagokionez, aldaketa batzuk egiteko asmoa dugu.

Hemendik gutxira, eta gai horren garrantzia ikusita, udaltzain bat —agentea edo agente lehena— aukeratuko da bakarrik prestakuntza arloan lan egiteko: beste polizien heziketa zentroak bisitatuko ditu, Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin harremanetan etengabe egongo da, aztertuko ditu langileen prestakuntza gabeziak eta agenteen berariazko beharrak, prestakuntza plana diseinatuko du, eta horren segimendua eta ebaluazioa egingo ditu.

Esan bezala, Zerbitzuko langile horrek prestakuntza plana diseinatuko du. Bertan, ez ditu bazter utziko polizia teknika eta jardunbidearekin loturiko edukiak; izan ere, bai herritarrek eta bai Udalak nahi dute Udaltzaingoa kalitatezkoa izatea eta kalitatea handitzea, segurtasun arazoei aurre egiteko

El Servicio de Policía Local, de cara a la ciudadanía

La actuación de la Policía Local de Vitoria-Gasteiz podría calificarse de correcta en un porcentaje importante —muy correcta en algunos ámbitos destacados—, aunque en ocasiones se reciben quejas de la ciudadanía relativas principalmente al trato o al estilo de comunicación para con ella. La mayor parte de estas protestas hacen referencia al modo de relacionarse distante, arrogante, prepotente, desagradable o incluso agresivo, sin causa aparente que lo justifique.

Entre las causas que podrían explicar —nunca justificar— esta inadecuada actuación, alguna podría provenir de un modelo policial anterior al que ahora se pretende. Otras causas podrían ser cierto déficit formativo acerca del rol policial en su relación con la ciudadanía, o la ausencia de una cultura de servicio a la ciudad. Además, podríamos achacar este problema a las insuficiencias de las que en ocasiones ha adolecido el proceso selectivo. En este apartado analizaremos las mejoras que el Servicio de Policía Local está implantando o implantará en breve en estos dos aspectos, formación y selección, además de otras líneas de actuación que se están implementando.

Formación

De acuerdo con el resultado del proceso de participación ciudadana, una de las raíces de los problemas en el Servicio es la formación. En relación a este ámbito, pretendemos realizar una serie de cambios.

De forma inminente, dada la importancia de esta cuestión, se designará un/a policía, agente o agente primero, que se ocupará exclusivamente de todo lo relativo a formación: visitará centros formativos de otros cuerpos policiales, mantendrá un contacto permanente con la Academia de Policía y Emergencias de Arkaute, analizará las carencias formativas de la plantilla en general y de los y las policías en particular, diseñará un plan de formación, y realizará su seguimiento y evaluación.

Este miembro del Servicio elaborará un plan de formación. En él nunca se descuidarán los contenidos de operativa y técnica policial porque todos, ciudadanía y Ayuntamiento, queremos que la Policía siga teniendo y mejore en calidad, esté preparada para

eta erantzun egokiak emateko. Era berean, eduki horiek gizarte eta komunikazio trebetasunekin zerikusia duten beste batzuekin orekatuko ditugu, eta horrenbestez, alderdi batzuk azpimarratuko ditugu: liskarrak ebaztea, neutraltasuna, kultura ezberdintasunak eta talde lana, besteak beste.

Aipatu dugun plana dokumentu batean islatuko da, eta horrek ahalbidetuko du segimendua eta ebaluazioa egitea; horretaz gain, langile guztien esku jarriko da. Gainera, Udaltzaingoak dokumentu hori erabil dezake eskatzeko Arkautiko Akademiari bere prestakuntza gure errealitatera egokitzeko, hots, kontuan edukitzeko honako hau udal polizia dela, eta guk izatea nahi dugun ezaugarriak izan behar dituela.

Prestakuntza planak barne izango du, nahitaez, promozio berriak Zerbitzuan hartzeko programa bat, haiek zerbitzuan sartzerakoan udal egitura, sailaren antolaketa eta oinarrizko udal araudia ezagut dezaten.

Plan berri hori, gainera, bateragarri egin nahi dugu barne prestakuntzarekin; hori dela eta, gai batzuetan bereziki adituak diren etxeko profesionalek emango dute prestakuntza. Profesional horiek Arkautiko heziketan parte hartzeko aukera izango dute, Akademia beti elkarlanaren alde egon baita. Hori argi geratu da duela gutxi izan diren ikastaro batzuetan: tiro ikastaroak, trafiko eta atestatuak, polizia fitxei, eta bide seinaleei buruzko ikastaroak...

Ildo berean, jarduera eta esku hartzeen ebaluazioa eta segimendua berreskuratu eta sustatuko ditugu, bide egokia baita polizia praktika onak/txarrak helarazteko.

Aipatutako prestakuntza sistemari esker, polizia aditu eta trebatuagoa izango dugu, eta, gure ustez, baita motibatuagoa ere.

Hautatze prozesuak

Prestakuntzaren arloari oso lotua dago langileen hautatze sistema, hau da, Zerbitzuan sartzerakoan, eta batez ere, barne sustapenetan eta lanpostu esleipenetan; izan ere, horietan sortzen dira arazo larrienak.
Saileko zuzendaria dagoeneko hasia dago sindikatuetako ordezkariekin lanean, berraztertzeko

hacer frente a los problemas de seguridad y dé una respuesta adecuada. Estos contenidos se equilibrarán con otros relativos a habilidades sociales y de comunicación, en los que incidiremos en aspectos como la resolución de conflictos, la neutralidad, la diferencia cultural y el trabajo en equipo.

El plan que mencionamos se traducirá en un documento —lo que permitirá su evaluación y seguimiento—, se pondrá a disposición de toda la plantilla y será también la herramienta con la que el Servicio contará para solicitar de la Academia de Policía la adecuación de la formación a la realidad de lo que es, no sólo un servicio de policía municipal, sino además un servicio policial con las características que pretendemos que tenga.

El plan de formación incluirá un programa de acogida a las nuevas incorporaciones de forma que tengan conocimiento de la estructura, de la organización del departamento y del ordenamiento básico municipal.

Se garantiza también la compatibilidad del nuevo plan con la formación interna propia, que se impartirá por profesionales de la casa, especialmente preparados en determinadas materias. Estos mismos profesionales pueden tener espacio también en la formación impartida en Arkaute, que siempre ha acogido favorablemente esta colaboración.

Así se ha visto en recientes experiencias como los cursos de tiro, tráfico y atestados, fichas policiales o señalética. En paralelo se recuperará y fomentará también el seguimiento y evaluación de actuaciones e intervenciones, como forma de transmisión de buenas/malas prácticas policiales.

El sistema formativo indicado redundará en una Policía más preparada y cualificada y entendemos que también más motivada.

Selección

Unido al ámbito formativo está el relativo a los sistemas de selección de personal, en el acceso al Servicio, pero sobre todo en los procedimientos de promoción interna y adjudicación de destinos, que es donde se plantean los mayores problemas.
La Dirección del Departamento se ha puesto ya a

lanpostuak esleitzeko indarrean den prozedura eta berri bat egiteko edo beste bide batzuk arakatzeko. Azterketa horren emaitzek adieraziko dituzte barne hautaketetarako lerro nagusiak eta, bide batez, lagungarria izango da polizia bakoitza lanpostura egokitzeko.

Era berean, Funtzio Publikoaren Sailean mahaigaineratuko dugu hizkuntzen gaia, elkarrekin aztertzeko langileek zenbateraino dakizkiten bai euskara, bai beste hizkuntza batzuk.

Irudi korporatiboa hobetzea

Gobernu talde honek lortu nahi duen polizia eredua da malgua, prebentzioan diharduena eta bakegilea. Egungo gobernua herritarrek nahi dutenarekin bat dator eta badaki udal funtzionarioak nola hurbildu behar diren herritarrei; horregatik, hori aldatzeko, hainbat ildotan lanean dabil.

Horietako bat orain dela gutxi argitaratu den irudi korporatiboari buruzko agindua da; lehendabiziko zatia janzkeraz eta jarreraz dihardu, eta horren bitartez Zerbitzuaren irudia landu nahi da, ahal den heinean, gizalege arauetara hobeto egokitzeko, eta herritarrekin malgutasun eta hurbiltasun handiagoa lortzeko. Beste arau batzuk ere sortuko dira ildo berean.

Informazio eta komunikazio kanalak

Herritarren parte hartzeko prozesuan ikusi ahal izan dugu zein garrantzitsua den herritarrek Zerbitzu hau sakonago ezagutzea: funtsezkoa da, Udaltzaingoa hiriaren zati sentitzea, eta baita hiriak Udaltzaingoa bere sentitzea ere.

Hala, komunikatu nahi dugu zer egiten duen Udaltzaingoak, zeintzuk diren bere betebeharrak, hirira datozenekin harremanetan jartzeko zein prozedura dituen, edo bikaintasuneko definizioa, besteak beste. Horretarako, udal prentsa bulegoa gehiagotan erabiliko dugu polizien eginkizunak, zereginak eta arrakastak gehiago eta hobeto ezagutarazteko. Era berean, gizarte sareen eta webgunearen erabilera indartuko dugu, Zerbitzuari egokia iruditzen zaion informazioaz gain, herritarrentzat erabilgarri izan daitezkeen prozeduren berri emateko.

trabajar con la representación sindical para revisar el vigente procedimiento de adjudicación de destinos y elaborar uno nuevo o explorar otras vías. El resultado marcará las líneas de la selección interna y la manera de lograr la adecuación al puesto de cada policía.

Igualmente se trasladará al Departamento de Función Pública la cuestión idiomática, para analizar conjuntamente la situación de conocimiento de euskera y otros idiomas por parte de la plantilla.

Mejora de la imagen corporativa

El modelo policial que este equipo de gobierno pretende es flexible, preventivo y conciliador. El gobierno actual es sensible a esta querencia de la ciudadanía y al modo en que los funcionarios municipales deben acercarse a la población, por lo que está trabajando en varias direcciones para cambiarlo. Una de ellas consiste en la publicación reciente de una instrucción sobre imagen corporativa, que en una primera entrega abarca la parte relativa a uniformidad y comportamiento, mediante la cual se pretende trabajar la imagen del Servicio, mejorando lo que suponga adaptarse a los estándares cívicos, ganando en cercanía a la ciudadanía y flexibilidad para con ésta. Seguirán otras normas en el mismo sentido.

Canales de información y comunicación

Del proceso de participación ciudadana se ha desprendido también la importancia de que la ciudadanía conozca con más profundidad el Servicio de Policía Local. Es vital no sólo que la Policía se sienta parte de esta ciudad, sino que también la ciudad sienta a la Policía como suya.

Así, pretendemos comunicar qué hace Policía Local, cuáles son sus funciones, los procedimientos cuando interactúa con los que pisan la ciudad o su definición de excelencia. Para esto se va a potenciar la utilización del servicio de prensa municipal, para dar a conocer más y mejor las funciones, labores y logros policiales. Igualmente se afinará el uso de las redes sociales y de la web, para difundir, además de la información que el Servicio considere pertinente en cada momento, procedimientos de actuación que puedan resultar útiles a la ciudadanía.

Gogobetetze inkestak

Neurri berean, funtsezkoa da Udaltzaingo Zerbitzuak gasteiztarren eskaerak ezagutzea. Horregatik, Saileko zuzendaritzaren asmoa da gogobetetze inkestak berreskuratzea herritarren kezka eta arazoen berri izateko, eta gutxienez bi urtetik behin egitea. Horrela, herritarrak inplikatu ahalko dira eta poliziaren lana aztertzeko eta ebaluatzeko aukera izango dute.

Urteko memoria

Zerbitzuak urtero argitaratzen duen memoria ere berraztertu egingo dugu. Gure helburua beti izan da dokumentu luzeegia ez egitea, ulergarriagoa izan dadin, baina, dena den, badago zer hobetu. Hartara, hobekuntza garrantzitsua izango da dokumentua gogobetetze inkesten emaitzekin lotzea. Modu horretara erantzuna eman nahi diegu herritarren zilegizko nahiei, hobeto esanda, poliziak egiten dituen lanen gainean aldizka informazioa jasotzea.

Gertakarien mapa

Gaur egun, informazioa lortzea behar-beharrezkoa da, bereziki polizia arloan; izan ere, zenbat eta zehatzagoa eta landuagoa izan informazioa eta eguneko jardunean lortzen diren datuak zenbat eta gehiago edo hobeto gurutzatu —bai barne lanean, bai beste erakundeekin egiten den elkarlanean—, gero eta hobeto ase daitezke herritarren beharrak. Horrek guztiak ahalbideratzen du baliabideak hobeto antolatzea, aukera gehiago izatea, aurreikusteko gaitasun handiagoa eta malgutasun handiagoa izatea, eta azken finean, erantzun azkarragoa eta hobea ematea.

Esanak esan, Udaltzaingo Zerbitzua aspalditik ari da gertakarien mapa egiten, trafiko eta bide segurtasunarekin lotutakoa. Baina, oraindik orain ikusita datuak hobeto aztertzeko eguneroko jardunbideak zehaztapen eta lanketa sakonagoa behar duela, aztertzen ari gara ea aukera hori beste delituetara zabal daitekeen, egun dauzkagun edo etorkizunean izango ditugun informatika programen arabera, jakina.

Harremanak elkarte eta gizarteko taldeekin

Jakitun gara gure zerbitzuak hazi behar duela elkar ezagutzen, hurbilago egoten eta malguago iza-

Encuestas de satisfacción

Es igualmente vital que el Servicio de Policía Local conozca las demandas de los vitorianos y vitorianas. De ahí que sea intención de la Dirección del Departamento recuperar las encuestas de satisfacción, para tomar el pulso a las inquietudes y problemas de la ciudadanía, y realizarlas, como mínimo, cada dos años. Ésta será también la vía para implicar a la ciudadanía en el seguimiento y evaluación de la labor policial.

Memoria

Reconsideraremos también la memoria que cada año publica el Servicio. Nuestro objetivo siempre ha sido hacer un documento que no sea excesivamente prolijo, para hacerlo más accesible, pero admite mejoras. Una de ellas, importante, consistirá en vincular el documento con el resultado de las encuestas de satisfacción. De este modo pretendemos dar respuesta a la legítima pretensión ciudadana de recibir informes periódicos acerca de la labor policial.

Mapa incidental

La necesidad de extraer información hoy en día es imperiosa, y en el campo policial en particular, cuanto más concreta y elaborada es esa información, cuanto más y mejor se crucen los datos que se obtienen en el día a día internamente y en la colaboración con otras instituciones, mejor se puede responder a las necesidades ciudadanas, porque ello permite una mejor asignación de recursos, un mayor margen de maniobra, una mayor capacidad de anticipación, una mayor flexibilidad, y en definitiva, una respuesta más inmediata y mejor.

Dicho esto, el mapa incidental es algo que el Servicio de Policía Local viene confeccionando en relación con los delitos de tráfico y seguridad vial. Pero de un tiempo a esta parte, y visto que la operativa diaria requiere una mayor concreción y elaboración para un mejor análisis de los datos, se está estudiando la posibilidad de extenderlo a otros delitos, si bien es una cuestión que depende en gran medida de los programas informáticos de que disponemos o de los que podamos disponer en un futuro.

Interrelación con asociaciones y colectivos sociales

Somos conscientes de la necesidad de crecer en

ten. Beraz, alderdi hori hobetzen hasteko zehaztu eta jakinarazi beharko dugu nortzuk izango diren Zerbitzuak ipiniko dituen solaskideak harremanetan jartzeko elkarte, kolektibo eta komunikazio nodoekin.

Gainera, azpimarratuko dugu poliziak auzoetan era informalean egoteko beharra, eta sistematizatuko dugu era formalean egotea aipatutako erakunde horiekin izango ditugun bileren bidez.

Horretarako, Auzo Poliziaren Taldea hazi egin da, eta 45 polizia izatetik 80 polizia izatera heldu da. Horretaz gain, dokumentu honen hasieran esan bezala, hiriaren banaketari bi eremu berri gehitu dizkiogu eta handitu egin ditugu Prebentzio eta Babes Taldea, Eskola Inguruko Taldea eta Ingurumen Taldea. Prebentzio eta Babes Taldearen kasuan, lan ordutegia ere handitu da. Lehentasuna da herritarrekin loturak estutzea, eta hori lortzeko beharrezkoa da egungo testuinguruan beharrezkoak diren baliabide guztiak jartzea, hurbiltasunetik aritzeko eta gasteiztarren arazoei irtenbideak emateko.

Diziplinarteko lan mahaiak

Udalari funtsezkoa iruditzen zaio herritarrak parte hartzeko prozesuetan barne hartzea. Zentzu horretan, diziplinarteko lan mahaiak egiten dira eta normaltasunez egiten dute lan. Une honetan, adibidez, bizikleten zirkulazioari buruzko ordenantza proiektua lantzen ari dira, eta eztabaidetan parte hartu nahi duten herritar guztiek, —norbanakoek eta taldeek—, eta eragiten dieten udal sailek, aisa egin dezakete.

Herritarrak heztea

